

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO MARTXOAREN 22AN EGINDAKO  
EZOHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**LEHENDAKARIA:** Jose M<sup>a</sup> Sarasola Goenaga

**ZINEGOTZIAK:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka  
Miren Maite Aizpurua Etxeberria  
Mikel Errazkin Agirrezabala  
Manuel Odriozola Iruretagoiena  
Rafael Uribarren Axpe  
Mikel Zubillaga Galarraga  
Jose Ignacio Otermin Garmendia

**IDAZKARIA:**

Nerea Etxebarria Atutxa

**AZTERGAIK:**

- 1.-Zinegotzi izandakoen harrera.
- 2.-Zinegotziek eginiko lanaren errekonozimendua.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta hiruko martxoaren hogeitabian, eguerdiko ordubatean, Udal-Batzarra bildu da, Ezohizko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1.- Zinegotzi izandakoen harrera

Alkate jaunak ongi etorria eman die guztiei eta gaurko ekitaldiaren jatorri eta helburuaren aurkezpena egin du.

#### **Erabakia:**

Udalbatzarrerara bertaratutakoek ahobatez, Alkate jaunak irakurri duen hurrengo testua onartu dute:

*“Gaur hemen bildu gara azken 30 urte hauetan Anoetan, gure herrian, Alkate eta Zinegotzi izan garenok, baina, ez genituzke aipatu gabe utzi nahi, hemen, gu bezalaxe Alkate edo Zinegotzi lanetan aritu zirenak eta tamalez, gure artetik joan zirenak.*

*Gaur hemen elkartzearen arrazoi nagusia bat da: herri txiki hauetan zinegotzi eta alkatetza lana “musutruk” egin behar izaten da, gure ustez lan handia eta zuzen bideratua, eta ahalegin hori eskertu beharra dageola ikusi dugulako.*

*Garai zailak, ilunak, gaziak, eta beste bartzuk gozoagoak bizi izan ditugu, baina, beti herriaren mesedetan izan dela konbentziturik gaude, herri txikia izanik diru iturriak ere txikiak izan dira eta zerbait egin ahal izateko ahalegin handiagoa eskatu du horrek.*

*Hor daude gure aurretik egon zirenak eginiko ahaleginen fruituak (bartzuk bakarrik aipatzearen, geltokia, lehen ur ekarrerak, eskolak,...) eta hemen gaudenon ahaleginaren fruituak ere bistan dira (herrira sartzeko bi zubi, eskola berriak, udaletxe hau, osasun zentroa, musika eskola, frontoi berria, ur ekarrerak, kanposantua, eta beste hainbat eta hainbat gauza...). Ahalegin hauekin herria jantzi dugu, agian ez trajerik onenarekin, baina, jantzirik dago eta hemen gaudenok eginiko trajearekin eta horregatik harro senti zaitezkete, gaitzkeela uste dugu.*

*Ahalegin guzti horretan parte aktibo izan zaretelako, garelako, eman nahi dizkizuegu eskerrak Udal honen eta herri ososaren izenean.”*

## 2.- Zinegotziek eginiko lanaren errekonozimendua

Pedro Maria Peñagarikano Labaka zinegotzi jaunak puntu honen aurkezpena egin du eta esan du Udaletxe txikietan diru iturriak eskasak direnez, opari xume bat besterik ezingo zaiela egin. Aipatu du opari honen bidez eskerrak emateko asmoa dutela, nahiz eta jendeak eginiko ahalegina ez den eskerrak emanez bakarrik ordaintzen.

### **Erabakia:**

Udalbatzarrerara bertaratutakoek ahobatez Pedro Maria Peñagarikano zinegotziak irakurri duen hurrengo akordioa hartu dute:

*“Hemen ilusio osoz aritutako guztiei oroigarri xume bat baina, gure ustez esanahi handikoa eskeini nahi dizuegu, **eguzki lorea** kristalean grabaturik.*

*Eguzki lorea aukeratu dugu argiaren sinbolo delako eta hemen bildutakoak bere ahaleginarekin argi txikia eginez herri honen bidea markatu delako.*

*Eguzki lorea aukeratu dugu, etxearen babesle delako eta hemen gaudenok, herriko etxea, Udaletxea babesten saiatu garelako.*

*Eguzki lorea aukeratu dugu, atarian ezarriz, eta izpiritu gaiztoen uxatzaile delako, eta hemen gaudenok kanpotiko eraso askotatik herria defendatzen saiatu garelako.*

*Eguzkilorea aukeratu dugu, tradizioak dioenez San Juan egunean ezarritakoak babes berezia eskeintzen dielako etxekoei eta guk errepresentatzen dugun herri honetako patroi San Juan delako.*

*Udal eta herriaren izenean eskerrik beroena, nahiz eta jakin, zuuen ahalegina eskerrak ematearekin ezin dela ordaindu.”*

Jarraian opari banaketa egin da:

-1979 aurretik izandakoak:

Manuel Odriozola, Joakin Kalleja, Alejandro Colas eta Ignacio Amonarriz daude.

Alkate izaniko Manuel Odriozola jaunaren hitzak: “ gaurko ekitaldi honek badu esanahi bat, munduan dauden gerra eta gatazken aurrean hemen gaur hau egitea zerbait berezia da.”

-1979-1983 urte bitartean izandakoak:

Andoni Argoitia, Begoña Urkizu, Jose Maria Oyarzabal, Alberto Oyarzabal, Ignacio Urkola, Miguel Arburua eta Lorenzo Artola eta Miguel Arburua daude.

Alkatea Andoni Argoitia izan zen baina hurrengo legislaturan ere izan zenez, hurrengo txandan botako dituela hitz batzuk esan du.

- 1983-1987 urte bitartean izandakoak

Andoni Argoitia, Carlos Zabala, Iñaki Peñagarikano, Manuel Odriozola, Jose Maria Oyarzabal eta Alberto Oyarzabal daude.

Alkate izaniko Andoni Argoitiaren hitzak: *"Herri honetara heldu nitzanean konturatu nintzen pertsonalitatea behar zuela, aurrera atera behar zuela. Garai haietan ez zen oso ezaguna Gipuzkoan. Dena den, berehala konturatu nintzen kriston kapitala zegoela herri honetan eta kapitala jendea zen, pertsonak bizi dirala herri honetan eta hori dela garrantzitsuena eta horregatik txalo bero bat pertsona horientzat"*

- 1987-1991 urte bitartean izandakoak:

Pedro Maria Peñagarikano, Gregorio Zuaznabar, Iñaki Mugika, Miguel Angel Urkola, Maria Txapartegi, Jesus Iturrioz eta Juan Carlos Etxebeste daude.

Alkate izaniko Pedro Maria Peñagarikanoren hitzak: *"Udaletxea izan da niretzat inoiz inon izan dudan eskolarik hoberena eta tresna garrantzitsua izan da jendea ezagutzeko ere. Eskerrak eman nahi dizkiet nirekin batera lanean aritu ziren zinegotzi guztiei eta nola ez, Udal langileei"*

1991-1995 urte bitartean izandakoak:

M<sup>a</sup>C. Millan, Rafael Uribarren, Manuel Odriozola, Pedro Maria Peñagarikano, Jose Maria Sarasola, J.M. Etxarri, eta Miguel Angel Urkola daude.

Alkate izan zen J.M. Uzkudun ez denez etorri, bere ordeztan Rafael Uribarren jaunak bota ditu hitz batzuk: *"Alkatea izan zena ezin izan denez etorri, bere ordeztan nik hitz batzuk esan nahi ditut eskerrak emateko garai hartako korporazioari eta langileei."*

1995-1999 urte bitartean izandakoak:

Jose Maria Sarasola, Natalia Perez, Manu Odriozola, Patxi Mugika, Jose Maria Urkola, Rafael Uribarren, M<sup>a</sup> C. Millan eta Nekane Gorostidi daude.

Alkate izaniko Jose Maria Sarasolaren hitzak: *”Legislatura honetan zerbait berezia izan zen:kulturalki eta gauzak bultzatu behar zirela pentsatzen genbiltzan, Anoeta ezaguna egiteko. Baina Udaletxean sartu bezain pronto norbaitek lagundu zigun: Abraham-ek Tour-a irabazi zuen eta Anoeta oso ezaguna egin zen.”*

- 1999-2003 urte bitartean diranak:

Jose Maria Sarasola, Maite Aizpurua, Mikel Errazkin, Jose Ignacio Otermin, Mikel Zubillaga, Manu Odriozola, Periko Peñagarikano, Rafael Uribarren daude.

Alkate den Jose Maria Sarasolaren hitzak: *”Ez da egia ni lau urte Alkate izan naizenik, urte baterako oporraldia izan dudalako intsumisio gaiengatik eta Perikok ordezkatu ninduen nire lanetan garai horretan, horrek suposatzen zuen esfortzuarekin”*

Bukatzeko Jose Maria Sarasola Alkate jaunak, urtero zinegotzi eta Alkateak egiten duten San Juan bezperako suaren aurreko dantza egitera denak gonbidatu ditu aurtengorako, hauteskunde urtea izanik urte berezia baita.

Eta besterik gabe, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, eguerdiko ordubiak hogeit gutxi diranean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede enaten dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARIA